

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

6256

AGINDUA, 2021eko azaroaren 30ekoa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, 2021eko ekainaren 9ko Aginduaren babesean aurkeztutako dirulaguntza-eskabideak ebazten dituenak. Aipatu aginduak 2021ean egingo edo hasiko diren kirol-lehiaketa ofizialetan, nazioarteko eremua eta izaera dutenetan, kategoria absolutuan, eta emakumezkoen liga nazionaletan, kategoria absolutuan parte hartzeko dirulaguntzak emateko arauak ezartzen ditu.

AURREKARIAK

1.– 2021eko uztailaren 1ean EHAAn argitara eman zen Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2021eko ekainaren 9ko Agindua, 2021ean egingo edo hasiko diren kirol-lehiaketa ofizialetan parte hartzeko dirulaguntzak, nazioarteko eremua eta izaera dutenetan, kategoria absolutuan, eta emakumezkoen liga nazionaletan, kategoria absolutuan dirulaguntzak emateko arauak ezartzeko dena.

2.– 2021eko ekainaren 9ko Aginduaren 10 artikuluekin bat etorritik, Balorazio Batzordeak dirulaguntza eskabideen gaineko agindu-proposamena egin zuen 2021eko urriaren 19ko bilkuran, baita Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari jakinarazi ere, hura ikusita, aurkeztutako dirulaguntza eskabideen gaineko erabakia har zezan.

Horrela bada, balorazio-batzordeak egindako agindu-proposamena ikusita, eta aipatutako aginduaren 13. artikuluan emandako ahalmenez baliatuz, honako hau,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– I. eranskinean jakinarazten diren entitateei dagozkien dirulaguntzak ematea.

Bigarrena.– II. eranskineko eskabideak ez onartzea, bertan agertzen den arrazoia dela eta.

Hirugarrena.– 2021eko ekainaren 9ko Aginduan arautako dirulaguntzak jasotzen dituztenek, testuaren 15. artikuluan jasotako betebeharrak bete beharko dituzte.

Laugarrena.– Dirulaguntza bi ordainketatan pagatuko da; lehenean, diruz lagundutako zenbatekoaren ehuneko hirurogeita hamarrari dagokiona, eta esleipen-agindua jakinarazitakoan eta hura onartzeko epea igarotakoan gauzatuko da; eta bigarrena, beste hogeita hamarrari dagokiona, 2022ko urtarrilaren 1etik hara gauzatuko da, betiere diruz lagundutako lehiaketa justifikatutakoan, zeina 2022ko martxoaren 1a baino lehenago burutu beharko baita.

Hori horrela izateko, emandako dirulaguntza onartu egin beharko da. Dirulaguntza ematen zaiela jakinarazten duen jakinarazpena jaso eta hamabost eguneko epean entitate onuradunek ez badiote dirulaguntzari espreski eta idatziz uko egiten, onartu dutela ulertuko da.

Bosgarrena.– Emandako dirulaguntza justifikatzeko, erakunde onuradunek 2022ko martxoaren 1a baino lehen ondoren zehazten diren agiriak aurkeztuko dituzte <http://www.euskadi.eus/nirekarpeta> webgunearen bitartez:

a) Jarduerari buruzko txostena. Bertan, gutxienez, 2021eko ekainaren 9ko Aginduan baloratzen diren alderdiak azaldu beharko dira.

b) Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren laguntza berariaz aipatzen duten dokumentu guztien aleak.

c) Fakturen bidez eta zuzenbide- eta merkataritza-zirkulazioan froga-balio baliokidea duten edo administrazio-efikazia duten gainerako jatorrizko agirien bidez egiaztatuko dira gastuak. Faktura eta dokumentu guztiak espediente elektronikora igo behar dira. Aurkezten diren fakturek jasotako dirulaguntzaren zenbateko osoa justifikatu behar dute.

d) Jarduera gauzatzean Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak erabili direla egiaztatzen duen dokumentazioa.

e) Ekitaldiaren aurrekontu gauzatua; diru-sarrera eta gastu guztiak adierazita. Bereziki jaso beharko da helburu berarekin eskuratutako gainerako laguntzen zerrenda, baldin eta eskabideak aurkezteko unean haiek eraginkor izango ziren jakiterik ez bazegoen.

Seigarrena.– Dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatzen badira –betiere dirulaguntzaren xedea bete bada– edo beste erakunde publiko zein pribatuetatik beste laguntzarik jaso bada, laguntza emateko agindua aldatu ahal izango da. Horretarako, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak likidazio-agindua emango du esleitutako dirulaguntzaren zenbatekoa doitzeko.

Zazpigarrena.– Ondorengo hauek izango dira ez-betetzeak:

a) Jasotako dirulaguntzak (zenbateko osoa edo zati bat) 2021eko ekainaren 9ko Aginduan onartutako jardueretarako erabili beharrean, beste zerbaitetarako erabiltzea.

b) 2021eko ekainaren 9ko Aginduan ezarritako betebeharrak ez betetzea.

c) Dirulaguntzaren likidazio aginduan adierazitako kopurua ez itzultzea horretarako ezarritako epean.

d) Xedapen orokorretan nahitaez bete beharrekotzat jotako beste edozer ez betetzea.

Ez-betetzereen bat gertatu dela egiaztatzen bada, jasotako zenbatekoak eta legezko interesak Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzuli beharko zaizkio, betiere azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuaren arabera.

Zortzigarrena.– Interesdun guztiei agindu honen berri emango zaie banan-banan, nahiz eta EHAAren ere argitaratuko den.

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari. Beraz, beraren aurka, interesdunek berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari, hilabeteko epean, agindua argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, edo bestela administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, hala adierazten baitu Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko azaroaren 30a.

Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua,
BINGEN ZUPIRIA GOROSTIDI.

2021eko abenduaren 16a, osteguna

I. ERANSKINA
EMANDAKO DIRULAGUNTZAK

Espedientea	Entitatea	IFK	Egitasmoa	1. zatia 2021 (% 70) (euro)	2. zatia 2022 (% 30) (euro)	Guztira (euro)
007-KLP-2021	Araski Arabako Emakumeen Saskibaloia Elkartea (Liga)	G01484237	Liga Femenina Endesa	24.500,00	10.500,00	35.000,00
015-KLP-2021	Balonmano Zuazo Femenino (Liga)	G48488589	Liga Guerreras Iberdrola	28.000,00	12.000,00	40.000,00
013-KLP-2021	Bera Bera Rugby Taldea (Balonmano)	G20144630	Women´S EHF European League	35.334,18	15.143,23	50.477,41
012-KLP-2021	Bera Bera Rugby Taldea (Balonmano Liga)	G20144630	Liga Guerreras Iberdrola	31.500,00	13.500,00	45.000,00
023-KLP-2021	Bera Bera Rugby Taldea (Rugby)	G20144630	Campeonato de Europa de Clubs de Rugby A 7	5.110,00	2.190,00	7.300,00
025-KLP-2021	C.D. Bidasoa	G20155495	EHF European League Men 2020-2021	8.225,00	3.525,00	11.750,00
028-KLP-2021	C. de Hielo Txuri-Berri (Masculino)	G20337523	World Curling Tour (Masculino)	6.946,00	2.976,85	9.922,85
029-KLP-2021	C.de Hielo Txuri-Berri (Mixto)	G20337523	World Curling Tour (Mixto)	11.658,90	4.996,67	16.655,57
022-KLP-2021	C. Gaztedi	G48439160	2021 Twif World Outdoor Tug Of War Championship	29.386,00	12.594,00	41.980,00
016-KLP-2021	C.D. Ciclista Velodromo Duranguesado de Abadiño	G95197265	Competiciones Internacionales C1 y C2	24.500,00	10.500,00	35.000,00
002-KLP-2021	C.D. Ibaeta de Baloncesto (Liga)	G20897757	Liga Femenina Endesa	31.500,00	13.500,00	45.000,00
005-KLP-2021	Cd Zuzenak	G01120518	UCI Paracycling World Cup Ostend	3.597,05	1.541,58	5.138,63
018-KLP-2021	Club de Baloncesto en Silla de Ruedas Bilbao	G48777882	Champions Cup 2021	8.615,79	3.692,47	12.308,26
014-KLP-2021	Fundacion Ciclista de Euskadi	G48555494	Pruebas Internacionales UCI	21.000,00	9.000,00	30.000,00
003-KLP-2021	Gernika K.E. Saski Baloi	G48430417	Eurocup Women	28.000,00	12.000,00	40.000,00

2021eko abenduaren 16a, osteguna

Espedientea	Entitatea	IFK	Egitasmoa	1. zatia 2021 (% 70) (euro)	2. zatia 2022 (% 30) (euro)	Guztira (euro)
001-KLP-2021	Gernika K.E. Saski Baloi (Liga)	G48430417	Liga Femenina Endesa	31.500,00	13.500,00	45.000,00
009-KLP-2021	Gernika Motor Elkartea	G48503387	Campeonato del Mundo de Motocross MX-GP	7.000,00	3.000,00	10.000,00
027-KLP-2021	Goiherri-Ko Kirol Elkartea de Erandio	G48456149	2021 Twif World Outdoor Tug Of War Championship	23.954,98	10.266,42	34.221,40
020-KLP-2021	Hondarribi Surf Kirol Kluba Hs2	G75061192	Surf Women's Challenger Series	7.000,00	3.000,00	10.000,00
017-KLP-2021	Landu Durangoko Emakumezko Txirrindulari K. T.	G95293791	Pruebas UCI Femeninas	41.907,98	17.960,57	59.868,55
021-KLP-2021	Mutriku Soka Tira Taldea	G20502936	2021 Twif World Outdoor Tug Of War Championship	3.430,00	1.470,00	4.900,00
008-KLP-2021	Real Sociedad de Futbol Sad (Liga)	A20424511	Liga Iberdrola Hockey División de Honor Femenina	14.000,00	6.000,00	20.000,00
019-KLP-2021	Saski Baskonia Sad	A01051556	Euroleague	8.225,00	3.525,00	11.750,00
010-KLP-2021	Sd Ugeraga	G48256655	Pruebas World Tour UCI	24.500,00	10.500,00	35.000,00
011-KLP-2021	Zarauzko Surf Elkartea	G20628517	Pruebas Internacionales de Surf	16.226,76	6.954,33	23.181,09
006-KLP-2021	Zumaiako Itzurun Surf Ke	G20776407	Pruebas Internacionales de Surf	10.226,23	4.382,68	14.608,91
024-KLP-2021	Zurrumbito Debako Surf Kirol Elkartea	G20805040	Pruebas Internacionales de Surf	4.156,13	1.781,20	5.937,33
			Guztira	490.000,00	210.000,00	700.000,00

II. ERANSKINA

EZEKOA JASO DUTEN ESKABIDEAK

1º. Aurkeztutako eskaeran atzera egiteagatik:

Entitatea
C. Gaztedi

2º. Erakunde onuradun izateko baldintzak ez betetzeagatik:

Entitatea
Club Atletismo Santutxu de Bilbao